



## GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Anoeta 5, Donostia 943 46 14 40

[gmf-administrazioa@kirolak.net](mailto:gmf-administrazioa@kirolak.net)

# XVIII ARGAZKI LEHIAKETA MENDIKO JARDUERAK 2023KO EGUTEGIA

Gipuzkoako Mendizale Federaziotik aurten argazki lehiaketan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Lehiaketa honen helburua da gizartea kontzientziaztea mendiek duten aberastasunaz eta bertako jardueren aniztasunaz.

Argazki lehiaketa honetan aukeratutako lanak Gipuzkoako Mendizale Federazioko 2023ko egutegian agertuko dira. Lan honek gure mendietako balio naturalekiko kontzientzia areagotu nahi du.

**Gaia:** Mendiarekin eta GMFk babestutako jarduerekin zerikusia duten guztiak: Bidezidorrak, eskalada, espeleologia, ingurumena, emakumea eta mendia, alpinismoa (pirinioak), eskola-kirola, ibilaldi nordikoa, alpinismoa (nazioartekoa), eskia, mendiko lasterketak. Argazkien kalitate artistikoa baloratuko da lehentasunez.

**Partaideak:** mendizaleak, argazkilariak, afizionatuak, etab.

**Modalitatea:** Digitala formato horizontalean edo bertikalean 2 X 3 gutxi gorabehera, alde txikiena (altuera) 2.500 PX gutxienez eta 300 PP errezoluzioarekin. 15 MB gutxienezko tamainarekin eta TIFF edo RAW artxiboan.

**Lan kopurua:** partehartzaile bakoitzak lau argazki aurkeztu ditzake, inongo lehiaketan saritu gabeak.

**Aurkezpena:** argazkiekin batera, egilearen datuak aurkeztu beharko dira: izen-abizenak, helbidea, e-maila eta telefonoa. Honi argazkiaren deskribapena gehituko zaio (tokia, garaia, etab)

**Nora bidali:** lanak postaz, WeTransfer bidez ([gmf-administrazioa@kirolak.net](mailto:gmf-administrazioa@kirolak.net)) edo bertara eramanez hurrengo helbidean aurkeztuko dira:

Gipuzkoako Mendizale Federazioa. Argazki lehiaketa  
Kirol Etxea. Anoeta pasealekua, 5  
20014 Donostia.

**Onarpen epea:** ekainaren 15etik uztailearen 31ra.


**Erabakia:** 2022ko irailaren 15a baino lehen erabakiko da. Epaimahaia antolatzaileek izendatuko dute eta bere erabakia aldaezina izando da.

**Sariak:** 13 argazki sarituko dira. Aukeratutako argazkiak Gipuzkoako Mendizale Federazioko 2023ko egutegian agertuko dira.

GMF egutegiko saridunek 10 egutegi jasoko dituzte. Egutegiak Federazioaren egoitzan jasoko dira. Halaber, aukeratutako argazkiaren zabalpen bat jasoko dute, luma kartoizko oinarri baten gainean.

**Oharrak:**

- Gipuzkoako Mendizale Federazioa izango da argazki irabazleen jabea. Kopia egin eta hedatzeko eskubidea izango du antolaketak, beti ere egilearen izena aipatuz, eta eskubide horiengatik irabazleak ez du sariaz gain beste ordainsaririk jasoko.
- Saririk jaso ez duten aurkeztutako argazkien jabeek baimena emango diote antolaketari argazkiak bi urteren epean erabili ahal izateko.
- Antolatzailerik ez dira kargu egiten gerta daitekeen edozein arazoren gainean.
- Hemen aipatu ez den ezusteko bat balego, antolaketak erabakiko luke, inongo apelazio aukerarik gabe.



**Sin.: Koldo Sansinenea  
PRESIDENTEA**